

ENEKO GORRI

MINTZALASAI EUSKARA ELKARTEKO KIDEA ETA
MIARRITZEKO EUSKARA TEKNIKARIA

“Euskaldunak gara, baina oraindik ez dakigu ogia euskaraz erosten”

Eneko Gorri (Angelu, 1983) *Erabileraren aroa: begirada bat Ipar Euskal Herri hitzaldia eskaini zuen Topaguneak urtarrilaren 31n antolatutako Euskaltzaleen mugimendu berritura bidean* jardunaldietan. Gorri uste du gazte sektore ameslarienean euskararekin sekula baino konektatuagoak direla. Kudeaketa lanak zaharrei utzi eta haien militantzia eredu sortzea proposatzen die.

TESTUA | ONINTZA IURETA AZKUNE
ARGAZKIA | JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Ondoko lerroetan Eneko Gorriren hitzaldiaren bigarren zatia dugu, alegia, erabilerari eta militantziari buruz aritu zen zatia. Jardunaldiko hitzaldi guztien bideoak ondoko helbidean dituzue: topagunea.eus/topaldia.

Eneko Gorri: Ezagutzatik erabilerara egiteko izan dugu ariketa sozial bat, Euskaraldia. Horren aitzin izan dira hainbat inizatiba Ipar Euskal Herrian eta Baiona-Angelu-Miarritze (BAM) hiri eremuan. Euskaraldiari egiten ahal zaizkio nahi ditugun kritika guztiak, baina gurean izan du funtsezko ekarpen bat, eta hau da: euskaraz bizitzeko ditugun korapiloak, zailtasunak edo mugak azaleratu dizkigu.

Mende erdiz tresnak garatu ditugu, transmisio kanalak sortu ditugu, alfabetatu gara, nirea bezalako familia erdaldunetan seme-alabak euskaldundu dira, mirakulu batzuk sortu ditugu, eta hau kristorena da, baina oraindik korapiloak baditugu, euskaldunak gara baina oraindik ogia euskaraz erosten ez dakigu. Teknikoki badakigu galdetzen, baina korapiloz beteak gara erdaldun baten aitzinean gure lehen hitzak euskaraz emateko. Ezezagun baten aitzinean, baita etxe barnean ere. Gure bikotean ere, euskara ez delarik hasierako hizkuntza, sekulako zailtasunak ditugu pasatzeko beste hizkuntzara.

Euskaraldiak kontzientzia-hartzea bideratu du, bai kostalde urbanizatuan, frantsesean, baita ere barnealdean, euskaldunagoa eta landatarragoa. Mintzaten ginelarik barnealdeko lagunekin erraten ziguten Euskaraldia ez zela haientzako ariketa, hirietakoa zela, bazekitela herri txikian norekin euskaraz ari ziren eta norekin ez. Ados, eta zergatik frantses hiztun batekin ez ginateke euskaraz ari izango? Eta Baigorritik ateratzean, gure herri txikitik ateratzean, zer hizkuntza portaera dugu?

Ber denboran entzuten genuen hirietako jendea erraten: “Hirietan euskara ezin da praktikatu, ez da aukerarik, debaldetako litzateke lehen hitzak euskaraz egitea edo euskarari eustea, edo elkarrizketa elebidunak plantan ematea. Horrek balio du Hegoaldearentzat edo herri euskaldunentzat, baina gurean ez du balio”. Azkenean, fede txar horren gibelean, euskaraz bizitzeko ditugun zailtasun indibidual eta kolektiboen kontzientzia gordetzen da. Biziki erregai interesgarria da etorkizunerako.

EUSKALTZALETASUNAREN KUTSU ERREBELDEA BERRESKURATU

Badakit orain erranen dudana zalantzarria dela eta pixka bat hausten duela

eraiki nahi dugun adostasun sozial printzipioarekin, baina uste dut euskararen erabileraren apustua egiten dugun momentutik, Ipar Euskal Herrian behintzat, norma berri bat eraikitzen hasten garela, eta norma berria eraikitzea inportantea da euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa lortu aitzin ere. Erabileraren apustua egiten dugularik, lehen hitzak eta ondokoak euskaraz ematen ditugularik, erabakitzen dugu euskaldun gisa ez garela gehiago bigarren mailako hiztunak. Hor gibelean, bada desobedientzia puntu txiki bat, niretzat biziki erakargarria.

15-25 urte genituelarik euskaltzale izatea abertzale deskafeinatua izatea zen. Guk bagenituen beste borroka askoz nobleagoak: internazionalismoa, iraultza, eraikuntza nazionala, feminismoa... Euskara kontuetan oldarkortasuna berreskuratzea biziki interesgarria iruditzen zait, bereziki belaunaldi gazteek euskararekiko ez baitute guk dugun lotura. Oroitzen naiz 5 urte nituelarik ikastolaren aldeko manifestazioak matrakaz eta gas negar eragilez bukatzen zirela. Gaur egun gazteek ez dute ber harremana, ber konfliktibitatea euskararekin, baina euskaltzaleatasunari berriz ere kutsu hori ematen badiogu, iruditzen zait beste logika bat elikatzen ari garela. Beharbada Jonen



HERRI MUGIMENDUA ETA MILITANTZIA. "EZ DIRA DESAGERTZEN ARI, DESPLAZATZEN ARI DIRA, ETA NIRE USTEZ, SOBERA KUDEAKETARA".

[Jon Sarasuak goiz hartan emandako hizaldiaz ari da] alderantzizkoa errango nuke, Ipar Euskal Herrian gazte sektore ameslarienean euskararekin sekula baino konektatuagoak direla iruditzen zait eta hori ikusten dudalarik sekulako esperantza iturria da. Euskal Herria Zuzenean musika jaialdian, 18 urte genituelarik, gure norma frantsesa zen, herri mugimenduetan norma frantsesa zen. Iraultzaileak ginen, frantsesez mintzatzenginen, kito.

BELAUNALDI BERRIA GIDARI

Adin piramidearekin oroitzen bagara, gazte belaunaldia izanen da euskararen zama bizkar gainean izanen duena eta bera izan behar da gidari prozesu horretan. Ez da erraza izanen haientzat, baina haien aitaxi-amatxientzat ikastola sortzea ez zen erraza izan. Beraz, lortuko dute gure aitaxi-amatxiek lortu duten bezala. Ez nuke belaunaldien arteko lehian sartu nahi. Gaur egungo gazteek ez dute eginen aitzinekoek baino hobeto edo okerrago. Haiena eginen dute. Mezu bat umilki helarazten ahal badiegu: ez mugatu aitzinekoek sortu dituzten tresnak kudeatzera, zuen tresnak asmatu. 18 urtetan ez dira kudeatzaileak izan behar, lan horiek gu bezalako zaharrei

utzi behar dizkiegu.

Euskararen berreskuratzearen bataila zaila izanen da irabaztea, ez baldin badugu ekintzaitzaren edo militantziaren bataila berriz irabazten. Saiatuko naiz ideia hau garatzen. Beti ari gara erraten militantzia Ipar Euskal Herrian ere krisian dela, gaurko gazteak individualistak direla, gaurko jendarteak likidoagoak direla... Ados naiz, baina euskalgintza beti analizatzen dugu pesimismoaren beturrekoetatik sektore batzuetan. Militantzia ez da hainbeste desagertu, militantzia aldatzen ari da, eta guk ezagutu duguna edo gure aitzinekoek ezagutu dutena desberdina da. Adibide batzuk hartu eta beti horiei begira egoten gara eta hori da sintomatikoena.

Uztaritzen 50 urtez Lapurtarren Biltzarra egin da, eta pasa den urtean krisi baten ondorioz desagertu da. Baina desagertu den urte berean, Uztaritzeko dantza taldeak 30 urteak ospatu ditu eta horretarako 130 herritar mobilizatu dituzte zortzi hilabetez kabalkada bat osoki muntatzeko euskaraz. Bi aldiz eman dute eta 2.500 pertsona hurbildu dira. Sekulako proiektua sortu dute. Kabalkada horren sortzeko behar izan duten energiaren ehuneko bat eman bazuten biltzarraren alde, biltzarra berriz joaten

ahal zen. Baina jende guztiak atxiki du biltzarra desagertu dela.

Herri mugimendua eta militantzia ez da desagertzen ari, desplazatzen ari da, eta nire ustez, sobera kudeaketara mugitzen ari da.

Bigarren adibidea hartuko dut. 5 urte nituelarik bost ikastola zeuden Ipar Euskal Herrian, 36 urte ditudalarik 36 ikastola. 36 ikastola kudeatu behar dira: bada festa batzordea, euskaraz bizi batzordea, obra batzordea, apainketa batzordea, bulegoa, administrazio kontseilua... Hori ez da militantzia? Badira ehunka guraso egunero lanean 36 ikastolatan. Beraz, militantzia desplazatzen ari da kudeaketara.

Gazte belaunaldira itzulita, gure belaunaldian ez genuen planteatzen jarraera desobedientea Frantziar Estatuako azterketa ofizial batean. Pasa den urtean, kasik ikasgela oso batek *breveta* (ziurtagiria) euskaraz pasatzeko erabakia hartu du, desobedientziaz. 16 urte dituzte. Haiei ari gara aurpegiatzen militantziaren krisia. Aitzinekoek sekula egin ez zutena egin dute; baxoarekin egin zen, baina zortzi ikasle ziren. Ken ditzagun beturreko horiek, euskaltzaletasuna eraldatzen ari da, nostalgikak ez du ezertarako balio. ●